# I ARABAKO FORU ALDUNDIA DIPUTACION FORAL DE ALAVA I

## Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

*Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak*

**7.274**

**57/2002 FORU DEKRETUA, azaroaren 12ko Diputatuen Kontseiluarena. Horren bidez, banda zabaleko lineak erabilita ordenagailuak abiadura handian Internetera konektatzeko dirulaguntza programa onesten duen Foru Dekretuaren (ekainaren 18ko 36/2002 Foru Dekretua) hainbat artikulu aldatzen dira.**

Ekainaren 18ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2002 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiak banda zabaleko lineak erabilita ordenagailuak abiadura handian Internetera konektatzeko dirulaguntza programa onetsi zuen. Laguntza programa horretarako eskariak aurkezteko epea 2002ko uztailaren 8an hasi zen eta 2002ko abenduaren 31n bukatuko da, Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean zehaztu bezala.

Foru Dekretu horren 3. eta 8. artikuluak aldatzea beharrezkoa da, interneteko operadoreek abiadura handian konektatzeko eta ordaintzeko eskaintzen dituzten era anitzak eta Arabako Foru Aldundiaren aurrekontua likidatzeko 2002ko arauak kontuan hartzen badira.

Horren ondorioz, Foru eta Toki Administrazio eta Eskualde Garapenerako Saileko diputatuaren proposamenez eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran hala erabaki ondoren,

XEDATU DUT:

1.- Banda zabaleko lineak erabilita ordenagailuak abiadura handian Internetera konektatzeko dirulaguntza programa arautzen duen ekainaren 18ko 36/2002 Foru Dekretuaren 3. artikulua aldatzea. Honela idatzita geratuko da:

"3. artikulua.- Ezarpen eremua eta konexioa egiteko aldia.

3.1.- Arabako Lurralde Historikoko partikularren etxeetan 2002ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte egiten diren konexioko altek dirulaguntza izan dezakete.

3.2.- Dekretu honen ondorioetarako, konexioko altaren data izango da erabiltzaileak internet abiadura handian erabili dezakeen lehenengo eguna, hornitzaileari zerbitzuak zein egunetan eskatu dizkion kontuan hartu gabe. Altako eguna dagokion froga-agirian egiaztatu beharko da."

2.- Banda zabaleko lineak erabilita ordenagailuak abiadura handian Internetera konektatzeko dirulaguntza programa arautzen duen ekainaren 18ko 36/2002 Foru Dekretuaren 8.3. artikulua aldatzea. Honela idatzita geratuko da:

"8.3.- Dirulaguntzak dagokion administrazio xedapen bidez emango dira, eta ordaintzeko betebeharra aitortuko da, dagozkion baldintzak edo betekizunak bete direla adieraziz. Beti ere, eskatzaileak 3. artikuluak ezarritako eran konexioko alta formalki egiaztatzen badu."

Vitoria-Gasteiz, 2002ko azaroaren 12a.– Diputatu Nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– Foru eta Administrazio eta Eskualde Garapenerako diputatua, CARLOS SAMANIEGO PÉREZ.

*Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak*

**7.693**

**965/2002 ERABAKIA, azaroaren 26ko Diputatuen Kontseiluarena, Iruña Oka eta Vitoria-Gasteizko Subillabideko Industria Sektorearen Plan Partziala behin betiko onesten duena.**

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Herrilan eta Hirigintza diputatuaren irailaren 12ko 768/2002 Foru Aginduaren bidez, hasierako onespena eman zitzaion

## Disposiciones y Resoluciones Administrativas

*Decretos Forales del Consejo de Diputados*

**7.274**

**DECRETO FORAL 57/2002, del Consejo de Diputados de 12 de noviembre, que modifica diversos artículos del Decreto Foral del Consejo de Diputados 36/2002, de 18 de junio, de aprobación del Programa de ayudas para la conexión de ordenadores a Internet a alta velocidad mediante redes de banda ancha.**

Mediante Decreto Foral 36/2002 del Consejo de Diputados de 18 de junio, la Diputación Foral de Álava aprobó el Programa de Ayudas para la conexión de ordenadores a Internet a alta velocidad mediante líneas de banda ancha. Este Programa de Ayudas abrió el plazo de presentación de solicitudes el 8 de julio del 2002 con su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava y finalizará el 31 de diciembre de 2002.

Como consecuencia de la variada casuística existente en los procedimientos de conexión y de facturación que están ofreciendo los diferentes operadores de Internet a alta velocidad y teniendo en cuenta además, las normas de liquidación de presupuesto de la Diputación Foral de Álava del año 2002, resulta necesario modificar los artículos 3 y 8 del citado Decreto Foral.

En su virtud, y a propuesta del Diputado de Administración Foral y Local y Desarrollo Comarcal y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO:

1.- Modificar el artículo 3 del Decreto Foral 36/2002 de 18 de junio por el que se aprueba el Programa de Ayudas para la conexión de ordenadores a Internet a alta velocidad mediante líneas de banda ancha, que quedará redactado de la siguiente forma:

"Artículo 3.- Ámbito de aplicación y período de realización de la conexión.

3.1.- Podrán ser subvencionables las altas de conexión que se realicen en domicilios particulares ubicados en el Territorio Histórico de Álava, en el período comprendido entre el 1 de enero y el 31 de diciembre del 2002.

3.2.- A efectos del presente Decreto se entenderá como fecha de alta de conexión a aquella en la que el usuario tenga por primera vez disponibilidad de uso del servicio de Internet a alta velocidad, con independencia de la fecha en la que el usuario haya solicitado al proveedor los citados servicios. Dicha fecha de alta se deberá acreditar formalmente con el documento probatorio correspondiente."

2.- Modificar el apartado 8.3 del artículo 8 del Decreto Foral 36/2002 de 18 de junio por el que se aprueba el Programa de Ayudas para la conexión de ordenadores a Internet a alta velocidad mediante líneas de banda ancha, que quedará redactado de la siguiente forma:

"8.3.- Las subvenciones se otorgarán mediante la resolución administrativa correspondiente reconociendo la obligación de pago con señalamiento del cumplimiento de los requisitos o condicionantes a que hubiere lugar y una vez que el solicitante haya acreditado formalmente el alta de conexión en los términos recogidos en el Artículo 3 anterior."

En Vitoria-Gasteiz, a 12 de noviembre de 2002.– El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– El Diputado de Administración Foral y Local y Desarrollo Comarcal, CARLOS SAMANIEGO PÉREZ.

*Acuerdos del Consejo de Diputados*

**7.693**

**ACUERDO 965/2002, del Consejo de Diputados de 26 de noviembre, que aprueba definitivamente el Plan Parcial del sector industrial de Subillabide de Iruña de Oca y Vitoria-Gasteiz.**

ANTECEDENTES

Primero.- Mediante Orden Foral número 768/2002, de 12 de septiembre, del Diputado de Obras Públicas y Urbanismo, se aprobó ini-

Iruña Oka eta Vitoria-Gasteizko Subillabideko Industria Sektorearen Plan Partzialari. Hogeita hamar egunetan zehar jendaurrean egon zen, 2002ko irailaren 25eko Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean (109 alea) eta urte bereko irailaren 18ko el Correo egunkarian jakinarazi zena.

Bigarrena.- Epe horretan zehar lau alegazio aurkeztu ziren, hain zuzen ere, Villodasko San Pelayo ureztatzaileen elkarteak, Vitoria-Gasteizko Udalak, Jesús Aurtenetxe jaunak eta Enagás sozietateak jarritakoak. Araba Garapen Agentziak horiei buruzko txostena egin du.

Halaber, Araba Garapen Agentziak Arabako Foru Aldundiari hamabi aldaketa egitea eskatu dio, lurzati batzuen birdoitzeak aldatzeari eta eraikuntzako hainbat parametro aldatzeari buruzkoak.

Hirugarrena.-Herrilan eta Hirigintza diputatuaren azaroaren 25eko 1125/02 Aginduaren bidez, Plan Partzialaren espedienteari behinbehineko onespena eman zitzaion, aurkeztutako alegazioak ebatzi ondoren.

OINARRIAK

Lehenengoa.- Diputatuen Kontseiluaren urriaren 7ko 89/1997 Foru Dekretuaren 4. artikuluan eta uztailaren 28ko diputatu nagusiaren 149/1999 Foru Dekretuaren arabera, bi udalerriei eragiten dien Planak behin betiko onartzea Aldundiaren Diputatuen Kontseiluari dagokio.

Bigarrena.- Iruña Okako eta Vitoria-Gasteizko udalerrietakoa den Subillabideko (edo Nanclares industrial) industria lurzoru urbanizagarria zehatz-mehatz antolatzeko idatzi da Plan Partzial hau.

Planaren agiriak aztertu eta gero, ikusi da Hiri Plangintzaren Erregelamenduak 43. eta 63. arteko artikuluetan zehaztutako xedapenak eta agiriak jaso dituela.

Hirugarrena.- Plan hau behin-behinean onartu zuen aipatutako Foru agindu horrek, honako aldaketekin:

A. Trenbidearen jabari publikoko aldea zehaztea, errailen erdiko ardatzetik 13,30 m-tara.

B. Industria erabilerarekin bateragarriak diren erabilerak arautzea.

C. Hiri Plangintzaren Erregelamenduak 54. artikuluan zehazten dituen xedapenak Etapa Planean jasotzea.

D. Eraikitako guneen azpibanaketa arautzea, beti ere lurzatiaren unitatea mantenduz.

E. Ekonomia eta Finantza Azterlanean lurzatien desjabetzapenerako ustezko kostua jasotzea.

F. Sektorearen hegoekialdean dagoen errekastoaren egungo ibilbidea mantentzea.

G. 4. agiriaren (Jarduteko baldintzak eta Etapa Plana) 6 eta 7 idazpuruetan, sektorearen jabeei urbanizatzeko ezarri zaien betebeharra kentzea.

H. Enagás-ek eskatutako zehaztapenak jasotzea, batez ere, eraikinen atzera ematearen inguruan zehaztutakoari dagokionez.

Halaber, Araba Garapen Agentzia SA sozietateak eskatutako aldaketak onartu dira eta beste agiri tekniko bateratu batean aurkeztu. Aldaketa horiek I, M eta N lurzatien azalera zuzentzea eta hainbat eraikuntza parametro doitu eta zehazteari buruzkoak ziren, nahiz eta ez duten proposatutako antolamenduan aldaketarik sortu.

Laugarrena.- Alegazioak aurreko Planaren behin-behineko onespenean azaldu bezala ebatzi behar dira. Hori dela eta, Villodasko San Pelayo ureztatzaileen elkarteak aurkeztutako alegazioa onartuko da. Halaber, aurreko oinarrian azaldutakoaren arabera, Vitoria-Gasteizko Udalak eta Enagasek aurkeztutakoak ere onartu dira, eta Jesús Aurtenetxe jaunak aurkeztutakoa ezetzi.

Hori dela eta, Herrilan eta Hirigintza Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta gero,

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- Jendaurreko epean Araba Garapen Agentzia SAk proposatutako aldaketak onartzea.

Bigarrena.- Alegazioak aurreko Planaren behin-behineko onespenean azaldu bezala ebatzi behar dira. Hori dela eta, Villodasko San

cialmente el expediente de Plan Parcial del sector industrial Subidabille de Iruña de Oca y Vitoria-Gasteiz, ordenándose la apertura de un período de información pública durante el plazo de treinta días que se ha hecho efectivo mediante la inserción de los oportunos anuncios en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava número 109, de 25 de septiembre de 2002 y en el periódico El Correo del 18 del mismo mes y año.

Segundo.- Durante dicho período se han presentado cuatro alegaciones suscritas por la Comunidad de Regantes San Pelayo de Víllodas, el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, D. Jesús Aurtenetxe y Enagás, habiendo sido informadas por Álava Agencia de Desarrollo, S.A.

Asimismo, la citada Agencia ha solicitado a la Diputación Foral de Álava la introducción de doce cambios referentes al reajuste de las superficies de algunas parcelas y a diversos parámetros edificatorios.

Tercero.- Mediante Orden número 1125/02, de 25 de noviembre, del Diputado de Obras Públicas y Urbanismo, se aprobó provisionalmente el expediente de Plan Parcial, con la resolución de las alegaciones presentadas.

FUNDAMENTOS

Primero.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 4 del Decreto Foral 89/1997 del Consejo de Diputados, de 7 de octubre, y Decreto Foral del Diputado General número 149/199, de 28 de julio, la aprobación definitiva de las Planes que afecten a dos municipios corresponde al Consejo de Diputados de la Diputación.

Segundo.- El presente Plan Parcial se redacta para ordenar pormenorizadamente los suelos urbanizables industriales de los municipios de Iruña de Oca y Vitoria-Gasteiz que conforman el sector único de Subillabide o Nanclares Industrial.

Analizada la documentación del Plan, se comprueba que contiene las determinaciones y documentos señalados en los artículos 43 a 63 del Reglamento de Planeamiento Urbanístico.

Tercero.- El presente Plan ha sido aprobado provisionalmente mediante la Orden Foral anteriormente citada, con las modificaciones consistente en:

A. Fijar la zona de dominio público de la línea férrea a 13,30 m del eje intermedio de las vías.

B. Regular los usos compatibles con el industrial.

C. Recoger en el Plan de Etapas de las determinaciones establecidas en el artículo 54 del Reglamento de Planeamiento Urbanístico.

D. Regular la subdivisión del espacio edificado con mantenimiento de la unidad parcelaria.

E. Incluir en el Estudio Económico-Financiero el costo estimado de la expropiación de los terrenos.

F. Mantener el trazado actual de la regata existente en el extremo sureste del sector.

G. Excluir la obligación de urbanización impuesta a los propietarios del sector contenida en los epígrafes 6 y 7 del documento 4 “Condiciones de actuación y Plan de Etapas”.

H. Recoger las especificaciones solicitadas por Enagás, principalmente la definida en cuanto a retranqueos de la edificación.

Asimismo, han sido aceptadas las modificaciones solicitadas por Álava Agencia de Desarrollo, S.A., y presentadas en un nuevo documento técnico refundido, referentes a correcciones de las superficies de las parcelas I, M y Ñ y ajustes y precisiones de diversos parámetros edificatorios, que no conllevan alteraciones de la ordenación propuesta.

Cuarto.- Las alegaciones deben ser resueltas en los términos que lo fueron por la aprobación provisional del Plan, lo que supone estimar la presentada por la Comunidad de Regantes San Pelayo de Víllodas; estimar en los términos descritos en el fundamento anterior, las correspondientes al ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y Enagás; y desestimar la suscrita por don Jesús Aurtenetxe.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Obras Públicas y Urbanismo, y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada por el mismo en el día de hoy,

ACUERDO:

Primero.- Aceptar las modificaciones propuestas por Álava Agencia de Desarrollo, S.A. en el período de exposición pública.

Segundo.- Resolver las alegaciones en los términos que lo fueron por la aprobación provisional del presente Plan, estimando la pre-

Pelayo ureztatzaileen elkarteak aurkeztutako alegazioa onartzea, Vitoria-Gasteizko Udalak eta Enagasek aurkeztutakoak hurrengo xedapenean zehaztutakoaren arabera onartzea, eta Jesús Aurtenetxe jaunak aurkeztutakoa ezeztea.

Hirugarrena.- Iruña Oka eta Vitoria-Gasteizko Subillabideko Industria Sektorearen Plan Partziala behin betiko onartzea, Araba Garapen Agentziak aurkeztutako testu bateratuaren bertsioan, honako aldaketa hauekin:

A. Trenbidearen jabari publikoko aldea zehaztea, errailen erdiko ardatzetik 13,30 m-tara.

B. Industria erabilerarekin bateragarriak diren erabilerak arautzea.

C. Hiri Plangintzaren Erregelamenduak 54. artikuluan zehazten dituen xedapenak Etapa Planean jasotzea.

D. Eraikitako guneen azpibanaketa arautzea, beti ere lurzatiaren unitatea mantenduz.

E. Ekonomia eta Finantza Azterlanean lurzatien desjabetzapenerako ustezko kostua jasotzea.

F. Sektorearen hegoekialdean dagoen errekastoaren egungo ibilbidea mantentzea.

G. 4. agiriaren (Jarduteko baldintzak eta Etapa Plana) 6 eta 7 idazpuruetan, sektorearen jabeei urbanizatzeko ezarri zaien betebeharra kentzea.

H. Enagás-ek eskatutako zehaztapenak jasotzea, batez ere, eraikinen atzera ematearen inguruan zehaztutakoari dagokionez.

Laugarrena.- Adierazitako akatsak ez dira funtsezkoak, eta horregatik, aldaketak egin eta gero, espedientea ez da berriro jendaurrean ipini beharko, agiri berria Foru Aldundiari betearazteko eta argitaratzeko igorri aurretik.

Bosgarrena.- Ebazpen hau Arabako ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzea.

Seigarrena.- Aurreko ebazpen hori behin betikoa da administrazio bidean, baina horren aurka interesdunak ondorengo errekurtsoren bat ezarri ahal du. Hala ere, interesdunak egoki deritzon beste edozein neurri har dezake bere interesak babesteko. Hona hemen ezar daitezkeen errekurtsoak:

a) Zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren administrazioarekiko auzitarako sailean, bi hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Nahi izanez gero, errekurtso horren aurretik, interesdunek berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute ebazpena eman zuen organoan. Errekerimendua beste administrazio batzuek ere egin dezakete. Hilabeteko epea izango da horretarako, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko azaroaren 26a.– Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– Herrilan eta Hirigintza Saileko foru diputatua, ANTONIO AGUILAR MEDIAVILLA.

sentada por la Comunidad de Regantes San Pelayo de Víllodas, estimando según las modificaciones descritas en el dispongo siguiente la correspondiente al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y Enagás y desestimando la suscrita por don Jesús Aurtenetxe.

Tercero.- Aprobar definitivamente el Plan Parcial del sector industrial Subillabide de Iruña de Oca y Vitoria-Gasteiz, en la versión del documento refundido presentado por Álava Agencia de Desarrollo, S.A., con las modificaciones consistentes en:

A. Fijar la zona de dominio público de la línea férrea a 13,30 m del eje intermedio de las vías.

B. Regular los usos compatibles con el industrial.

C. Recoger en el Plan de Etapas las determinaciones establecidas en el artículo 54 del Reglamento de Planeamiento Urbanístico.

D. Regular la subdivisión del espacio edificado con mantenimiento de la unidad parcelaria.

E. Incluir en el Estudio Económico-Financiero el costo estimado de la expropiación de los terrenos.

F. Mantener el trazado actual de la regata existente en el extremo sureste del sector.

G. Excluir la obligación de urbanización impuesta a los propietarios del sector contenida en los epígrafes 6 y 7 del documento 4 “Condiciones de actuación y Plan de Etapas”.

H. Recoger las especificaciones solicitadas por Enagás, principalmente la definida en cuanto a retranqueos de la edificación.

Cuarto.- Las modificaciones señaladas no son sustanciales, por lo que una vez subsanadas se elevará el expediente al Consejo de Diputados, sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de declarar su ejecutoriedad y proceder a su diligenciación y publicación.

Quinto.- Publicar la presente resolución en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Sexto.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que se estime procedente:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, 26 de noviembre de 2002.– El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– El Diputado Foral titular del Departamento de Obras Públicas y Urbanismo, ANTONIO AGUILAR MEDIAVILLA.

*Foru Aginduak*

## LEHENDAKARITZA SAILA

**7.686**

**323/2002 FORU AGINDUA, azaroaren 27koa. Horren bidez, hautatuen behin-behineko zerrenda argitaratzen da Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorrean 2001eko enplegu eskaintza publikoaren bidez karrerako funtzionario gisa sartzeko, deialdi honetan: administrazio bereziko eskala, zerbitzu berezien azpieskala, lanbideetako kideen klasea, Topografia, (2413), D Taldea.**

Abenduaren 14ko 432/2001 Foru Arauaren bitartez onartu ziren Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorraren 2001eko enplegu eskaintza publikoa arautzen duten oinarri orokorrak.

Oinarri orokor horietako zortzigarrenak aurreikusten duenez, deitutako lanpostuen artean izangaiek daukaten lehentasun hurrenkera adierazi ondoren, Epaimahaiak hautatuen behin-behineko zerrenda osatuko du, hauek kontuan hartuta: eskatutako baldintzak betetzea,

*Ordenes Forales*

## DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA

**7.686**

**ORDEN FORAL 323/2002, de 27 de noviembre, por la que se publica la Relación Provisional de seleccionados/as en la Convocatoria para el ingreso como funcionario de carrera en la escala de administración especial, subescala servicios especiales, clase personal de oficios, Topografía (2413), Grupo D, correspondiente a la oferta de empleo público para el año 2001, de la Administración General de la Diputación Foral de Alava.**

Por Orden Foral número 432/2001, de 14 de diciembre, se aprueban las bases generales reguladoras de la oferta de empleo público para el año 2001 de la Administración General de la Diputación Foral de Álava.

La base octava de las referidas bases generales prevé que una vez manifestado por los aspirantes el orden de preferencia respecto de los puestos convocados, se confeccionará por el Tribunal una relación provisional de seleccionados/as, atendiendo al cumplimiento